

# UDAN EGINGO DUEN BIRAN EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRAK ZUZENDARIA ESTREINATUKO DU EUSKALDUNA JAUREGIAN

**Hitzordua uztailaren 27an izango da, 20:00etan, batutarekin egingo duen lehen agerpenean Ruben Gimeno erakutsiko duen energiarekin, eta, beste batzuen artean, musika klasikoko CH. Gounod, G. Mahler edo F. Schubert maisu handien sinfonia sortarekin.**

*Bilbon, 2020ko uztailaren 14an*

Euskalduna Jauregiak Euskadiko Gazte Orkestraren kontzertua emango du uztailaren 27an, 20:00etan. Ikus-entzuleek Ruben Gimeno zuzendari titular berri gisa egingo duen lehen agerraldian orkestrak erakutsiko duen energiaren gozatuko dute. Programa horretan protagonismo berezia izango dute, alde batetik, zur-haize sekzioak eta, bestetik, soka sekzioak, eta denak elkartu egingo dira, programa itxiko duen lanean. CH. Gounod, G. Mahler edo F. Schubert maisu handien sinfoniak interpretatuko dituzte, Bilboko Jauregia musika klasiko onenaz betez

Udako kontzertu biran Euskalduna Jauregira egin ohi duen bisitan, musika klasikoko maisuen sinfonia handiekin gozaraziko du EGOk. Horien artean, Charles Gounoden (1818-1893) Haize Musika-tresnetarako Sinfonia Txikia, haizezko 9 musika-tresnarentzat, hain zuzen ere. XIX. mendeko musikagile frantses ospetsuak genero asko ukitu bazituen ere, operan lortu zituen arrakasta nabarmenenak ("Fausto").

Gustav Mahlerren 5. Sinfoniaren Adagiettoa izango da musika

emanaldiko beste sinfonia protagonistetako bat, Mahlerrek bere emazteari eskainitako maitasun poema gisa idatzi zuen musikaren historiako piezarik ederrenetakoa. Eta baita Franz Schuberten 5. D.485 sinfonia bikaina Si bM-n, 1816ko urrian amaitutakoa eta Schubert hil eta hamahiru urtera, 1841ean, Vienan estreinatua.

### **Euskal Herriko Gazte Orkestra**

EGO laburduraz ere ezagutzen den **Euskal Herriko Gazte Orkestra**, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sortu zuen 1997an, eta, eratu zenetik, proiektu estrategikotzat hartzen da. Euskal musika-tresna jole gazteentzako orkestra-prestakuntzako tresna izatea du helburu, eta baita musika-tresna jole gazteen arte eta giza garapena sustatu ahal izateko eta mundu profesionalerako maila artistiko handiko sarbide izateko egitura sendoa sortzea ere.

Sarrerak salgai dagoeneko [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta Kutxabankeko zerbitzu anitzeko kutxazainetan. 11,50 eurotik aurrera (kudeaketa gastuak barne).